



danbolin

2024 urtea

262 ek.

**aisialdia,
inklusiara bidean**





675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



Tel. 943 851 868
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com



erdikalea 3
tel. 943 147 196



Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
07:30-13:30, 16:30-21:00
Larunbat eta igandetan
07:30-14:30, 17:00-21:00

tel. 943 536 314



943 147 657



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Zestoa
AUTOESKOLA


Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44



ABUZTUA		UZTAILA	
1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12
13	14	15	16
17	18	19	20
21	22	23	24
25	26	27	28
29	30	31	

IRAILA	
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	
18	
19	
20	
21	
22	
23	
24	
25	
26	
27	
28	
29	
30	
31	



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK
telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Portale Kalea 7, 20740 Zestoa
tel. 943 147 088



kutixi eta
pentsuak
www.laiakdenda.com
tfnua: 943148134
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.



Landetxea
eta
jaketxea
943 148 005



TXOKO TXIKI
Okindegia eta taberna
943 052 761



ZESTOA
Kale Okerra 3
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l
Itzulpenak baino askoz gehiago!



Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73



foru plaza, 4
tel. 943 147 095



ERRETEGIA
626 869 231 / 943 148 092
erreserbak@aranetaerretegia.com

PRIBILEGIOAK

Pribilegio txikien artean dut atariko hau idazteko aukera izatea, ematen baitzait aukera hurrengo Danbolin beste inork baino lehen irakurtzekoa. Pribilegiatu sentitzen naiz, orokorrean, bizitzari errepertuz gero; pertsonalki, hizkuntzari dagokionez, sozialki, ekonomikoki... Baina meritokraziaren kultura zabaltzen ari den garaiotan jakitun naiz denok ez ditugula aukera berdinak eta ez dagoela, neurri handi batean, norberaren esku. Aspaldi entzun nuen "a zer alde dagoen non jaiotzen zaren", eta ondo egia da! Eskailera-mailak ez baitira denontzat neurri berekoak.

Aisialdian ere antzematen da hori, noski, eta akaso ikastaro, tailer, saioetara joateko aukera dugunok sarri ez gara jabetzen badirela aisialdiko ekintzetan parte-hartzen ez duten edo ezin duten auzoak. Izan arrazoi ekonomikoengatik edo kulturalengatik, baina bazter hauetan, aisialdian, normalean azala zuri. Denon eskubidea behar lukeenean, batzuk pribilegiatu.

Arrakala leuntzeko asmoz diru-laguntza berriak jarri ditu martxan Udalak eta horren berri ematera dator gai nagusian Nerea Odriozola. Euskara Foroan askatu zen hari-puntari tiraka eman zaio forma, herriko hizkuntz-ohiturekin eta kulturartekotasunarekin arduratuta. Haur eta gaztetxoek aisialdirako diru-laguntzak dira eta Zestoako aisialdi arautuko eskaintza guztia sartzen ez bada ere, Itxaropena Dantza Taldean, Abantzu Pilota Elkartearen eta Bertso-, Futbol- eta Interpretazio-Eskolan izena emateko laguntzak izango dira, familien diru-sarreraren arabera emango direnak.

Gaiak badu mamia eta merezi du artikulua irakurtzeak, herri eta gizarte bezala eraiki nahi dugunarako eztabaida garrantzitsua irekitzen baitu. Gure aisialdiko ohituren gaia beste upel bateko sagardoa da, denboraren kudeaketa, kontsumoa, hizkuntza... baina horretaz hitz egiteko beste aldizkari oso bat beharko genuke gutxienez eta gaur ez daukagu tarterik guztiari heltzeko.

Arroabeen badira beren denbora libre bi gurgipen gainean pasatzea atsegin dutenak eta haiekin egon da Ohiana Kalparsoro. Motozale hauek ere izango dute zer kontatua. Eta, nola ez, uda garaian izaten diren auzoetako jaiak ere badute hilabete honetako aldizkarian beren lekua.

Zure aisialdian irakurri eta herriko berri izateko duzu Danbolin zerbaki hau. Urte garai honetan oporrak tokatzen bazaizkizu gozatu eta oporrik ezean, denbora libre aprobetxatu!

itsasoa zubiria



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRIGIZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabaitlea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EKXEA. AXUN ARRIZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIRARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MATSUCANI, PERU GARTZIA, JONE BERGARA, ITSASO WALIÑO ETA OHIANA CALPARSORO

Kolaborabaitlea/ausenbaitlea baldea: NAGORE GELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIUZOLA, ITSASO ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE

Disainua eta maketa:

ENEKO ARISTI

Inprimategia: GERTU (OÑATI).

lega gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429



HELLO TEACHER

Hello Txaro, my lovely neighbour! Ederra egin didazu! *Ten vecinos pa esto!* Eskerrak San Blas opil goxuak ekartzen dizkidazu, bestela hau ez nizu barkatuko. Esaten zenuen bezala, enbidoa jasotzerako oporrak hartuta eta denbora libreaz gozatuz nabil: hondartzara joan (eguraldiak laguntzen duenean), irakurri, ordutegirik gabe... ia-ia jubilatua bezala, zu bezala. Iraila arte behintzat!

Galdetzen zenidan ea Zestoan ingeles maila ona al dagoen. Baietz esango nuke, gaur egun gazte gehienek ondo menperatzen dute hizkuntza eta bidaiatzeko grina dutenez praktikatzeko aukera ere izaten dute. Danok dakigu hizkuntzak praktikatzeko ez badira, ahaztu egiten direla. Horregatik ni ere saiatzen naiz Ingalaterran ditudan lagunak bisitatzen edo beraiek gurera gonbidatzen.



Zuri hainbeste gustatzen zaizun Benidorm ere toki aproposa da ingelesa praktikatzeko, eta eguraldia eta jantaria Ingalaterran baino hobekoa gainera! Ibitakoa naiz ni ere hango pub eta diskotekatan mintzapraktikan gazte nintzela (dantzariaren emotikonoa sartu hemen); geroago familiarekin ere izan gara oporretan. Izan ere, Benidormek jende eta adin guztientzako giroa du.

Etorkizunean Zestoa hirueledun izango dan galderari erantzunez, ziur nago baietz. Aspaldi hasi nintzen klaseak ematen (eta ez naiz bakarrik herrian), eskolan ere umeak 4 urterekin hasten dira ingelesa ikasten, garai bateko ikasleekin seme alabak dira gaur egun ditudan ikasle batzuk... Beraz, esango nuke hiztunen portzentzia igotzen joan dela. Gainera ikusita parrandan nabiltzen, ikasleak, ikasle ohiak eta ikasleak ez direnak ere "Tepa, Maixa" esan beharrean "Hello teacher" esaten ditadela, seguru nago. Lotsa alde batera utzita, beste hizkuntza batean berba egitea errazagoa baita.

Ondo daki Sara Balenziagak, nire ikasle ohiak, zertaz ari naizen... Enbidoa *for you*, Sara!

Azkenaldian liburutegian sarri ikusten zaitut, buru-belarri ikasi eta ikasi. Advanced azterketarako prestatzen edo?

maixa nieves

pintada. **HAURREN JOLASGUNEAK ETA GURASOEN HANKA MARKAK.** Uztapide plazako parkean, haur txikiarentzat txirrista duen autobusa, jauziak egiteko ohe elastikoa, sokazko piramidea eta mahai jolasak ipintzen ari dira. Udaleko aurrekontu parte-hartzaileen bidez proiektua gauzatzeko bi urteko bide luzea egin dugu. Ia berrogei mila euro eta tonaka ilusio jarrita daude bertan.

Zubiaurreko aisialdi gunea ere hasi da itxura hartzen. Hesituta daude bi gunea lanak amaitu arte, baina haurrak gurasoekin barruan ibili dira. Noiz bihurtu gara guraso jendea ezetz esaten ez dakien espezie lotsa emangarri?

Parkean kautxuzko lurra lehortu gabe zegoen, zapaltzearen ondorioz zuloak sortu dira eta noizbait haur izan zirenek, plastikoa pilatu eta su eman diete.

Bandalismo ekintzak gero eta sarriago ari dira gertatzen. Inork ez du ezer ikusten, inork ez du ezer esaten. Kamerak jarri edo zigorrak ipintzen hastea mahai gainean jarritakoan, gure umeentzat gizarte zigortailerik ez dugula nahi esango dugu.

Orduan, utzi egin beharko diogu gure haurren morroi eta konplize izateari. Esklabo, debekuen gaintik beren desioak betetzen uzten badiegu. Eta konplize, beren ekintzen ondorioez libratzen laguntzen badiegu. Ez gurasook, geuri dagokigu kargu egitea. Garai bateko auzo-heziketa jarraituz, auzo zaintzari ekin beharko diogu.

Errietak izan daitezela edozein guraso, bizilagun edo herritarrenak. Gurasoen iritziz, beti merezitakoak. Pentsatu beharko genuke bestela ustez gure umeen defentsan geure buruari zenbateko kaltea egiten ari garen.

Ekain guraso elkartera

UDARA BENETAKOA

Badirudi Danbolineko zutabea idazteari ekiten diodan bakoitzean badudala halako joera bat, non, atzera, haurtzarora, gaztarora (ez ez oraindik oso gaztea haiz) begira jartzen naizen. Oroitzapenen halako kutxa bat irekitzen dut eta bertako istorio, usain, soinu eta abarrei begira hasten naizen, nahi gabe noski.

Oraingoan ere horrelako zerbait egin dut, momentuko txispa batek jarri nau atzera begira, eta konturatu naiz lehen ikusi eta bizitakoak oraintxe bertan ere hementxe ditugula eta gozatu ditzakegula.

Uztaileko egun bat da, lanetik etorri, zerbait jan eta sofan eseri naiz telebistara begira, Frantziako Tourra ematen ari dira eta Fermin Aramendi eta Xabier Usabiaga oso gustuko izan arren, zerbaitetik (nostalgia?) kanala TVEiera aldatzera bultzatu nau: Carlos De Andres eta Pedro/Perico/de España... Duela urte asko bezala sentitu naiz.

Eta bukatu aurretik, etxeko atarian sumatu ditut neska-mutil koxkorrek beraien bizikletak hartuta, garrasika, oparitzeko adina bizipoz soinean dutela. Automatikoki tentetu eta Zumaiaiko herriko plaiara noa bainua hartzera. Zeru urdina, bai azkenean bai!!

Ondoren limoizko izozkia jan dut, Twister, Colajet eta guzti horiekin zalantza egin ondoren. Gaztetxo kuadrillak entzun ditut etxera bidean, elkar agurtzen: batzuk, "hi gero bederatzietan bokadilloarekin plazan"; besteak ondoko herrietako festetara joateko planak egiten, "baino nik buelta goiz e!"; beste batzuk "bihar gaur bezala geratzen gaituk plaiarako ezta?".

Etxera iritsi naiz eta Danbolinerako zutabearekin bezala, koarderno eta arkatza hartu eta idazten hasi naiz, udarak, benetako udarak izan behar dituen plan eta akzio denak zerrendatuz, hurrengoan egiteko asmoz, noski.

Pijama motzarekin lo egin, lo-muturrarekin jaiki eta sanferminetako entzierroa ikusi, Tourra ikusi, herriko plaiain bainatu, goizetako serieak ikusi ("Las gemelas de Sweet Valley", "Vigilantes"...), Uztapide aurreko koxkan arratsaldeko ordu hilak lasai pasa, etxeko hozkailuan limoi eta laranja poloak egin eta jan, Grand Prix..., aurten futboleko Eurokopa ikusi (kamiseta gorrikoak ea ez duen irabazten), a!, eta aurtengoan gainera Joko Olinpikoak, orduero, hobeto ezin.

Hauek guztiak eta askoz gehiago egin ditzakegunez, goza dezagun ba danok aurtengo udara, benetako udara!

BIZITZARI BEGIRADA ALDAKETA BAT

Orain dela hilabete batzuk nire lehen zutabea egin nuen, eta hemen ari naiz berriro ere beste bat idazten. Lehengo zutabea ama bakar bateko familian jaiotzearen inguruan hitz egin nuen, eta horren harira nire Saharako ahizparen inguruan hitz egitera nator gaur.

DBH 4 an Saharako kanpamentuetara ez joatearen arantza hori kendu nahi nuen

eta jada Nayat hiru urtez jarraian dator Arroa Behera, udara gurekin pasatzera.

Interneten aurkitutako bost zenbaki ezberdinetara

deitu ondoren azkenean lortu nuen Zumaiaiko Darahli elkarteko koordinatzailearen zenbakia, nire irakaslea izandako Samuel Ruizena. Segituan deitua eta horrelaxe hasi ginen Nayat etortzeko planak egiten.

Zorte handia izan dugu ama eta biok Nayatekin, oso neska irekia eta alaia da. Honek, noski, ez du kentzen bere haserrearek edukitzea. Azkenean guztiz ezberdina den kultura batetik dator. Pena da ordea, bere azken urtea izango dela gure familian. Orain dela urte batzuk, lau urtez etortzen ziren baina orain hiru urtera jeitsi dute. Datorren urtean ea lortzen dugun ama eta biok bere herrira joatea, bere familiarekin ere izugarrizko harremana egin baitugu.

Aurten 200 bat ume etorri dira eta urtetik urtera gehiago etortzea da helburua, ea lortzen dugun. Bizitzari buruz daukadan ikuspuntua guztiz aldatzea lortu du Nayatek. Harrituta geratzen naiz berak kontatzen dizkidan istorioekin, hain gutxiarekin zein zoriontsu eta zein pozik bizi diren esaten didanean. Bai, berak kontatzen dizkit. Zeinen azkar ikasi duen euskaraz hitz egiten... Gure familian euskaraz hitz egiten denez euskaraz ikasteko zortea izan du Nayatek. Aurten gainera inoiz baino irekiago etorri da eta dena errazagoa ari da izaten. Hau guztia noski ez zen posible izango nire amama egongo ez balitz, gu lanea joaten garenean berarekin geratzen baita base-rrian. Hasieran animaliek errespetu pixkat ematen diote eta bukaerako alderantziz izaten da, ez da geldirik egoten!

22 urte besterik ez ditut baina nire bizitzako esperientzia polit eta onenetako bat izan da Nayat nire familian sartzea.

Ea urtetik urtera geroz eta ume gehiago etortzen diren eta bi hilabetez bada ere haur horiei poztasun apur bat ematen jarraitzen dugun, beraien egoera han oso zaila baita.

Azkenekoz, eskerrik asko Nayat; ama, amama eta nire familiako parte izaten usteagatik.



eneritz diez

aritz cestona



HAUR GUZTIEK DUTELAKO AISIALDIAZ GOZATZEKO ESKUBIDEA

ZESTOAKO UDALAK, EUSKARA FOROAK BULTZATAKO EKIMENAREN BAITAN, ZESTOAKO ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN PARTE HARTZEKO DIRULAGUNTZA LERROA JARRIKO DU MARTXAN IRAILETIK AURRERA. ESKATZAILEEK DAGOENeko ESKA DEZAKETE DIRULAGUNTZA.

AURREKARIAK

2021eko martxoaren 24an abiatu zen Euskara Foroa, euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko helburuarekin. Bertan, herrian euskara arloan dabilzanak, hezkuntza arloko eragileak eta gaien interesa zuten herritarrak bildu ziren. Hasiera samarrean identifikatu zen aisialdiak herriko haur eta gazteengan duen eragin positiboa, bai euskararen erabileraren alorrean eta baita sozializazio beharrak asetzeko orduan ere.

Euskara Foroaren aurreneko bilera hartako elkarrizketa puntu nabarmenena kalean eta parkean euskararen erabilerak izan duen jaitsiera izan zen, haur eta gazteen artean, batik bat. Gerago Soziolinguistika Klusterrak eta UEMAK eginiko kale neurketek errealitate hori baieztatu zuten. Hari horri tiraka, Zestoako Herri Ikastetxeko zuzendariarekin elkarlanean, laster ateratu zen lehen ondorioa: aisialdiko ekintza gidatuetan haur zein gazteek euskara erabiltzen dute; joko librean, hainbat kuadrillak gaztelera jotzen du.

Hasiera batean, Euskara Forokoek pentsatu zuten aisialdi eskaintzaren ezagutza falta izan zitekeela batik bat gaztelania erabiltzen duten hainbat kuadrillak eskolaz kanpoko ekintzetan ez parte hartzearen arrazoia eta, horren harira, 2021eko irailean herriguneko eskolaz kanpoko eskaintza ezagutarazteko kanpaina egin zen

“Gure seme-alabentzat dira” lelopean. Kanpaina haren ondoren, aisialdiko eragileekin kontrastea egin zen, eta datu argigarriak atera ziren: doakoak ziren ekintzetan jatorri eta maila sozioekonomiko anitzeko haur eta gazteek hartzen zuten parte; ordaindu beharrekotan, ez. Ondorioa argia zen, beraz: ezagutza falta gaindituta, familien ahalmen ekonomikoa zen arazoa. Hausnarketa prozesu honekin batera, Euskara Foroa



kulturartekotasunaren lanketan ere murgildu zen buru-belarri; hala, guraso ez euskaldunek eskolako informazioa behar bezala jaso dezaten bitartekoak jarri dira martxan eskolan, besteak beste, guraso bileretan Telegram bidez euskal hiztunak ez direnei zuzeneko itzulpena egiten zaie, baina bilera bakarra egiten dute guraso guztiek elkarrekin. Eskolako informazio-bideak bideratuta eta doituak, konpontzeke zegoen eskolaz kanpoko jardueratarara sarbidea bermatuko zuen araudia. Horretara etorri da bi errealitateak batuta, hausnarketa eskubideetan oinarritzeko beharra.



DOAKO ESKAINTZA INDARTU

Zestoako Ekain Guraso Elkarteak **Eskola Kirola** eta **Kirolaz Josta** antolatzen ditu aspalditik, eta guraso elkarteak berak bermatu izan du ordaindu ezin duten familietako haurrek doan parte hartu ahal izatea. Horrez gain, Zestoako Udalak **Gazteleku** zerbitzua eskaintzen du doan urte osoan zehar, eta baita **Barbantxo** aisialdi taldearen ekintzak ere, ostiral arratsaldetan. Udan, berriz, **Udaleku irekiak** antolatzen ditu, eta hor ere aspalditik daude ordaindu ezin dutenek doan parte hartu ahal izateko mekanismoak martxan.

Euskara Foroak diagnostikoa egin zuenean, aurreneko pausoa doako eskaintza hori handitzea izan zen, eta norabide horretan hainbat ekimen jarri ziren martxan. Horretarako, foroko kideek Guraso Elkartearekin eta hainbat herritarrekin egin zituzten aliantzak, eta horrela abiatu ziren zenbait ekimen, gurasoen lan boluntarioa ardatz. “Kontaidazu ipuin bat”, “ePELIan” eta “Irakurle gazteen kluba” izan dira martxan jarri ziren eta jarraitzen duten ekimen arrakastatsuetako batzuk.

“**Kontaidazu ipuin bat**” egitasmoa 2015ean jarri zen martxan. Ikasturtean zehar, asteartetan, herritar batek ipuin bat kontatzen die haurrei Zestoako Udal Liburutegian. Haurren adin-tartea aldatu egiten da kontalariaren eta ipuinaren arabera. Doakoa da, baina aforo kontuak direla eta izena eman behar izaten da.

“**ePELIan**” egitasmoa 2022ko urrian jarri zen martxan eta neguko igande arratsalde ilunetan haurrentzat bideo-emanaldia egiten du Guraso Elkarteak. Boluntarioak txandaka egiten dute lan eta sarrera doakoa da.

“**Irakurle gazteen kluba**” pasa den ikasturte honetan jarri da martxan eta, izenak dioen bezala, irakurle taldea da. Liburutegi zerbitzuak eta Danbolinzulo Kultur Elkarteak koordinatu eta dinamizatu dute eta ikasturte honetan 15 ume aritu dira. Irakurzaletasuna sustatzea du helburu egitasmoak.

Esan bezala, egitasmo berriak jarri dira abian azken urteotan, baina Zestoan hainbat elkarre dago urteetan haur eta nerabeekin lanean ari dena, eta horietara sarbidea bermatzea zegoen egiteke. 2023an, 2022-2023 ikasturtea bukatzeaz zela, gai hori mahaigaineratu zen Euskara Foroan eta Zestoako Udalak gaia aztertuta eta proposamena egiteko konpromisoa hartu zuen; konpromiso haren emaitza da araudi berria eta 2024-2025 ikasturtean izango da indarrean.

Araudiak urteetan herriko aisialdi eskaintza aberasten diharduten irabazi asmorik gabeko elkartei eragiten die. Honakoei, hain zuzen:

- ITXAROPENA DANTZA TALDEA.
- ABANTZU PILOTA ELKARTEA.
- FUTBOL ESKOLA.
- BERTSO ESKOLA.
- INTERPRETazio ESKOLA.

Udal ordezkari eta teknikariek azaldu dugutenez, Musika Eskolaren eskaintza hezkuntza arautuaren markoan kokatzen da, eta ez aisialdiarenean, eta ez da araudian sartu. Dena den, etorkizunean aukera hori aztertzea ez du baztertu Zestoako Udalak.



DIRULAGUNTZAK ESKATU AHAL IZATEKO ezinbestekoa da haur edo gaztetxoa Zestoan erroldatuta egotea eta 16 urte artekoa izatea. Eskaerak Zestoako Udaleko Gizarte Zerbitzuetan egin ahal izango dira eta, aurrez aipatutako baldintzez gain, ondorengoak ere bete beharko dira:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) onuradun izatea.
- Gizarte Larrialdietako Laguntzaren (GLL) onuradun izatea.
- Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera laguntzaren (BGDS) onuradun izatea.
- Laguntza horien onuraduna ez izan arren, pareko diru-sarrerak dituzten familia unitateek ere eskatu ahal izango dute dirulaguntza; horretarako, Gizarte Zerbitzuekin hitzordua hartu beharko dute, kasua azter dezaten.

besterik gabe, gaian interesa izateagatik. Inklusio kontzeptu horrekin kontrajarrita, ez zaio inori arrotz egingo segregazio kontzeptua ere.

Eskola-segregazioa edo hezkuntza-segregazioa ikasleak euren gaitasun, talde etniko, jatorri edota maila sozioekonomikoaren arabera eskola eta gela desberdinetan segregatu edo banatzea da, hezkuntza haientzat modu desberdinetan garatuz. Eusko Jaurlaritza oraindik orain hasi da errealitate horri aurre egiteko hainbat neurri hartzen. Denen den, Zestoako herrigunean eskola bakarra daukagu eta, eskola bakar eta publikoa izatea medio, bertan eskolaratzen dira Zestoako haur guztiak, izan autoktono, kanpotik etorritako, maila sozioekonomiko altuko zein baxuko. Errealitate hau medio, eskolaren abiapuntua inklusiboa dela esan genezake, herriko familia guztien errealitateei erantzun behar dielako. Bestelako erronkak planteatu ditu horrek, baina poliki-poliki, kulturartekotasuna lantzeko proiektuaren bidez, besteak beste, hezkuntza komunitatea ari zaie erronkei erantzuten.

Inklusioa eta, zehatzago, haur eta gaztetxoen inklusioa ez da eskolara mugatzen, ordea. Gizarte inklusiboa nahi badugu, eskolaz kanpo egiten diren jardueretara ere bermatu behar da sarbidea. Gainera, "Haurrak aisialdi, jolas eta ekintza kultural eta artistikoetan parte hartzeko eskubidea du". Hala dio 1989ko ekainaren 20an Arartekoak egindako *Haurren eskubideei buruzko hitzarmenak*. Ez da atzo goizekoa, hogeita hamabost urte pasa dira hitzarmen hori idatzi zenetik. Badakigu gure gizartean paperean aitortutako hainbat eskubide ahalmen ekonomikoaren baitan daudela eta hala egon da gure herriko eskolaz kanpo aisialdi eskaintza ere orain arte. Atzerapenarekin bada ere, badirudi eskubidea bermatzeko mekanismoak martxan jartzen hasiak garela herrian.

INKLUSIOA

Eskola inklusiboa, metodologia inklusiboak... azken urteotan hezkuntzaren inguruan aritzea tokatu zaionak entzunak izango dituzte kontzeptuak; izan ikasketetan landu izanagatik, izan hezkuntza komunitatean parte hartzeagatik... edo



Izan ere, aisialdi, jolas eta ekintza kultural eta artistikoak diruditen baina garrantzitsuagoak dira gizakiaren garapenean. Guztiok ez gara berdinak eta norbere zaletasun eta potentzialitateak garatzeko ezinbesteko espazioak dira, hezkuntza formalaz gain. Euskara Foroak hartu zuen inizatiba eta hausnarketaren abiapuntua, beraz, euskara izan zen; haratagoko gaia da, ordea.


Eskolaz kanpoko jarduerak hainbat esparrutan laguntzen die haurrei; besteak beste, komunitateko partaide sentiarazten dituzte, abilezia sozialak hobetzen laguntzen diete, konfiantza garatzeko onuragarriak dira eta ondo pasatzeko espazio segurua eskaintzen dizkiete, gutxienez heldu baten begiradapean. Aisialdian pantailek gero eta protagonismo handiagoa duten garaioan, horietatik aldentzeko bide eraginkorra izan daiteke eta, etxean euskararik ez daukaten haurren kasuan, euskara praktikatzeko beste espazio bat ere bada. Berdinen arteko harremanak lantzeko espazio egokiak dira; horregatik, ezinbestean izan behar dute guztientzat. Nekez eraikiko baitugu gizarte inklusibo bat guztientzat behar luketen espazioak, edozein arrazoi medio, segregatzaileak badira. Horretara dator dirulaguntza lerroa, eskubideak bermatu eta inklusioa indartzera.



OPORRETAN ERE, EUSKARA ZUREKIN!



Euskarazko mahai-jolasak,
filmak eta liburuak
kontsumitu opor hauetan!



berria
danbolin



Euskarazko multimedia
aukera guztiak QR
honetan:





ADONIS ETA ANERREK IRABAZI ZUTE BIGARRENEZ TXOKOKO PILOTA TXAPELKETA

Uztailaren 5ean amaitu zen Txokoko Pilota Txapelketa, urtero bezala, herritar asko gerturatu zen Gurutzeaga pilotalekura finala ikustera.

2023ko bikote irabazlean, Adonis eta Anerrek titulua berretsi zuten Xabat eta Mattin 30-23 mendean hartuta. Aurretik, hirugarren eta laugarren posturako partida jokatu zen, eta Mikelek eta Kixkurrak, Julen eta Jon gainditu zituzten 30-24ko emaitzarekin.

Maiatzaren 21ean hasi zen Txokoko Pilota Txapelketa eta hamabost bikotej hartu dute aurten parte.



[ELKARRIZKETA] BEÑAT SAINZ ARROARRAK GIPUZKOAKO ITZULIAN LEHENENGO ALDIZ PARTE HARTUTA BOSGARREN POSTUA LORTU ZUEN

Benat Sainz Arriola arroarrak 17 urte ditu eta Viveros San Anton-Exclusivas Mardu-Gorka Aseguruak taldeko txirrindularia da. Alebinetan hasi zen lehiatzen Zumaiako taldean.

Nola sentitzen zara Gipuzkoako Itzuliaren sailkapen orokorrean bosgarren postua lortuta? Oso gustura nago. Banekien ondo egiteko aukerak neuzkala. Disfrutatzen atera ginen, ondo hasi eta hobetzen joan ginen egunetik egunera.

Zer esan nahi du zuretzat Gipuzkoako Itzuliaren lehen urteko korrikalaririk onena zarela azpimarratzeak? Asko poztu nau lorpenak. Besteak ere oso maila onean zeuden eta oso estu egon zen orokorrean mailota lortzeko.

Nolako izan da zure prestakuntza itzulia prestatzeko? Zer alderdi izan ziren funtsezkoak zure jardunerako? Beste lasterketarako bezala prestatu naiz ahalik eta ondoen iristeko. Lasterketari baino denboraldiko itzuli onei garrantzi asko eman diegu eta ahalik eta deskantsatuen iritsi ginen.

Zer izan zen Gipuzkoako Itzuliaren erronkarik handiena zuretzat? Funtsezko alderdiak ondo entrenatzea eta ondo deskantsatzea egunetik egunera, baina baita ekipoko lana ere.

Lasterketan inoiz izan al da zure azken emaitzarako erabakigarritzat jotzen duzun unerik? Orokorrean txirrindulari batetik bestera ez zegoen denbora asko eta hori mantentzea esango nuke. Hala ere lasai atera ginen lasterketa bakoitzean, konfiantzaz.

Nolako eragina izan du zure maila honetako karrera batean lehen aldiz lehiatzearen esperientziak? Taldekideek oso ondo babestu naute. Andoingo etapan erori egin nintzen eta pelotoira sartzeko nire taldeko Danel Beristain nire zain gelditu zen. Azkenengo egunean berriro erori nintzen, eta Iker Eizagirre gelditu zen niri laguntzeko. Orokorrean gertu geneukan korrikalari bat eskapatu zen eta 20 segunduko aldea zeukan, nik berari beste 20 segundu ateratzen nizkion eta Aratz Unanueren laguntzarekin lortu genuen harrapatzea eta bi maillotak etxera ekartzea.

Txirrindulari bezala noraino ailegatu nahiko zenuke?

Ez daukat argi oraindik, ikasketei ere garrantzia eman nahi diet, baina gustatuko litzaidake afizionatu mailan jarraitzea.

Nolako izan da zure taldearen eta familiaren laguntza prozesu honetan? Ezinbestekoa. Emaitza hau beraiengatik lortu dut eta asko eskertzen diet.



ZESTOAKO EKOIZLEEN PROIEKTUAK EZAGUTU DITUZTE UREPELDARREK

Urepeleko eta Zestoako ekoizleek elkar ezagutzeko topaketa egin zen uztailaren 24an. Amilibia baserri ondoko lurretan dauden Amillubi eta Sakona-Komuntzo proiektuak bertatik bertara ezagutuz gain, Aizarnako Erxiñeko arrautzen proiektua ere ezagutu zuten, goizean zehar. Eguerdian, Ibañarrietako Ekain sagardotegian izan ziren eta bertan bazkaldu ondoren, Azpeitiko Elikagunea ere bisitatu zuten. Urepele eta Zestoaren arteko senidetzearen ondorioz sortutako ekizetako bat izan da hau.



IKER VILLAR GURUTZEAGA SARIKO TXAPELDUNA ETA IKER EIZAGIRRE AURRENEKO ZESTOARRA

Uztailaren 15eko Gurutzeaga txirringularitza itzuliak 95 parte-hartzaile bildu zituen, kadeteak eta gazteak barne. 82 kilometroko lasterketa bizia izan zen eta helmuga 73 txirringularik gurutzatu zuten. Lasterketako podiuma Iker Villarrek eskuratu zuen eta Iker Eizagirre arroarra izan zen Zestoako txirringularien artean aurrea helmugaratzen.



UR PUZGARRIETAN GOZATU ZUTEN HAURREK IRAETAN

Bere garaian eguraldi txarragatik bertan behera gelditutako ekintzak arrakasta izan zuen uztailaren 18an, Iraetan. Eguraldi paregabearekin gozatu zuten ur-puzgarrietan haurrek Iraetan.



HAUR SAHARRARREI ONGI ETORRIA EGIN ZITAIEN UZTAILAREN 27AN, UDALETXEAN

Jone Exposito eta Nerea Goikoetxea zinegotziek egin zien harrera Udalaren izenean "Oporrak Bakean" programaren baitan etorritako haur sahararrei. Expositok Zumaiaiko Darahli eta Zestoako Wadnaren arteko elkarlana eskertu zuen eta baita saharar haurrek etxean hartzen dituzten familiak ere, bereziki Zestoako kasuan, bi saharar haurrek hartu dituzten familiak.

Samuel Ruizek Darahli eta Wadnaren izenean proiektuak aurrera atera ahal izateko Udalak eskaintzen duen babesa eta ematen duen dirulaguntza eskertu zituen eta datorren urtean haur gehiago hartzeko familia gehiagoren eskaintza izatea nahiko luketela ere azpimarratu zuen.

Ongi etorri ekimenaren ondoren, Batzokian bazkaldu zuten Arroagora joan ziren apar festara.



80.000 PORRU LANDARE AMILLUBITIK INGURUKO EKOIZLEEN BASERRIETARA

Sektoreko beharrak hainbat eragilerekin identifikatu ostean, lurrak ezagutu eta martxan jartzeko aitzakia tarteko erronka zehatz bati ekin zion Amillubik: baratzezaintzat porru landare ekologikoa bertan ekoiztea.

Ekimenak aurreneko emaitzak eman ditu eta uztailaren 21ean hogeitahogei lagun baino gehiago bildu ziren Amilibia baserriko lurretan, talde eragileko kide zein herritarrak, izan duten eskaerari erantzuna emateko; 80.000 porru landare eraman zituzten inguruko ekoizleek beraien baratzetara. Amillubiko kideen esanetan "Ez da lan makala izan auzolana antolatzea eta oso pozik gaude emaitzarekin. Lana txukun egiteaz gain, elkarrekin giro ederraz gozatu dugulako. Elkarrekin lan eginez erronka konkretuei erantzuten gabilta eta ikusten bide berriak posible direla".



2022ko otsailean, motozikleten bost zalek Arrua Riders talde txoa sortzea erabaki zuten. Gaur egun, bi urte beranduago, taldean 27 kide dira, guztiak Arroa ingurukoak. Arrua Ridersekin bat egiteko baldintza bakarra, edozein motatako motozikleta izanda ere, bi gurpilekiko pasioa izatea da. Taldean zilindrada handiko motoak, errepidekoak eta trailekoak aurki daitezke, besteak beste, eta horrek taldearen aniztasuna islatzen du.

Arrua Riders: bi urtez gurpil gainean

Gora egin du kopuruari dagokionez baina baita aniztasunari dagokionez ere; izan ere, 27tik sei kide emakumezkoak dira, eta motozikletekiko pasioak ez du genero kontuez ulertzen.

Taldearen komunikazioa eta antolaketa WhatsApp talde baten bidez kudeatzen dute nagusiki, eta bertan modu espontaneoan koordinatzen dira irteerak. Ibilbideak alda daitezkeen arren, elkargune jakin batetik abiatzen dira beti: Arroabeko Txomin tabernatik, edo, behintzat, Arroabetik.

Arrua Riders taldearentzat, motozikletako irteerek helburu bakarra dute: gozatzea. Bihurguneak zeharkatzea, abiadura sentitzea eta bi gurpilek bakarrik eskain dezaketen askatasun sentazio hori sentitzea maite dute. Adiskidetasuna eta laguntasuna dira taldearen funtsezko zutabeak. Gidatzean segurtasuna hobetzeko jarduerak ere antolatu izan dituzte. Horixe izan da, hain zuzen, esperientzia aberasgarrienetakoa, gidatzeko ikastaroa egitea. Partaideei beren trebetasunak hobetzeko eta errepidean segurtasuna handitzeko aukera eskaini zien.

Errepidera ateratzen direnean, komunikazioa funtsezkoa da taldearen kohesioari eusteko eta guztien segurtasuna bermatzeko. Interkomunikagailuak ohiko tresnak dira kideen artean, ibilbideetan zehar harremanetan egoteko. Horrelako gailurik ez dutenean, motorzaleen ohiko keinuetara jotzen dute komunikatzeko, eta horrela, motoziklisten tradizioa eta espiritua mantentzen dituzte.

Elkarrekin gidatzeko esperientzia

Irteera bakoitza abentura berri bat da Arrua Ridersentzat. Ibilbideak eguraldiaren, taldearen lehentasunen eta, batzuetan, bide berriak esploratzeko nahiaren arabera aukeratzen dituzte. Ez dago plangintza zorrotzik, eta horrek aukera ematen die kideei askatasun eta berezkotasun sentazioaz gozatzeko irteera bakoitzean. Antolaketa malgu hori da taldekideek gehien baloratzen duten alderdietakoa.

Abiapuntua, Txomin taberna, sinbolo bihurtu da Arrua Riders taldearentzat. Topaleku soila baino gehiago da: istorioak



partekatzeke, ibilbideak antolatzeke eta adiskidetasun-loturak indartzeke gunea da. Handik abiatzen dira gehienetan errepidera, haizea soinean eta motorren orroa soinu-banda gisara hartuta. Taldeko motozikleten aniztasuna da Arrua Ridersen esperientziari aberastasuna gehitzen dion beste elementua. Zilindrada handiko motoetatik hasi eta *traileko* arinenetaraino, bakoitzak bere ekarpena egiten die ibilbideei. Kideek beren motoak mantentzeari eta gidatzeari buruzko ezagutzak eta aholkuak partekatzen dituzte, eta horrela etengabeko eta elkarrekiko ikaskuntza-giroa sortzen da.

Segurtasuna eta laguntasuna

Arrua Riders taldearen lorpen garrantzitsuenetakoa segurtasunarekiko konpromisoa izan da. Gidatzeko ikastaroa antolatzeke erabakiak kideen trebetasunak hobetzeaz gain, errepideko segurtasunaren garrantzia ere indartu zuen. Gaikuntzan balaztatze-teknikak, bihurtuneetan maneiatzeta eta larrialdi-egoeretan erantzuten jakitea funtsezko elementuak dira edozein moto-zalerentzat.

Motorzaleen keinu klasikoak



MOTERO AGURRA

Ezkerreko eskua jaso agur moduan, hatzak elkarrekin mantenduz.

Erabilera: Errepidean gurutzatzean beste motorzale batzuk agurtzeke erabiltzen da.



GELDITZEKO SEINALEA

Ezkerreko besoa altxatuta, ahurra beherantz duela eta gorantz eta beherantz mugitzen duela.

Erabilera: Taldea gelditu egingo dela adierazten du.



GASOLINA-SEINALEA

Gasolina-depositua hatz erakuslearekin seinalatu.

Erabilera: Erregaia hartzeke geldialdia egin behar dela adierazten du.



ARRISKU-SEINALEA ERREPIDEAN

Alboko ostikoa arriskua dagoen aldera.

Erabilera: Errepideko arrisku edo oztopo baten berri ematea gainerako motorzaleei.



ATZERA EGITEKO EDO ELKARTZEKO SEINALEA

Ezkerreko besoa altxatuta eta zirkulu bat eginez.

Erabilera: Taldekatzea beharrezkoa dela adierazten du, edo batzuek atzera egin behar dutela taldearekin bat egiteke.



ESKUINERA BIRATZEKO SEINALEA

Ezkerreko besoa angelu zuzenean tolestuta, eskua gorantz begira duela.

Erabilera: Hurrengo eskuinerako bira adierazten du.



EZKERRERAKO BIRAKETA-SEINALEA

Ezkerreko besoa horizontalean luzatuta.

Erabilera: Hurrengo ezkerreko bira adierazten du.



ABIADURA MURRIZTEKO SEINALEA

Ezkerreko besoa luzatuta, ahurra beherantz duela eta eskua gorantz eta beherantz mugitzen duela.

Erabilera: Taldeak abiadura murriztu behar duela adierazten du.



LAGUNTZA-BEHARRAREN SEINALEA

Ezkerreko besoa altxatuta ukabila itxita eta gero behin eta berriz irekita.

Erabilera: Taldeko norbaitek edo norberak laguntza behar duela adierazten du.



NARRONDO SANKRISTOBALAK

San Kristobal Egunean, asteazkenez, eman zitzaien Narrondon festei hasiera. Oholtza gaineko mezaren ondoren, hamaiketakoa eta haurrentzat puzgarriak eta musika izan ziren aurreneko eguneko protagonistak. Atsedean hartzeko eguna eta gero, asteburu borobila izan zuten; inguruko sagardoak dastaketa eta Gure Ametsa elkartearen, berriz, hanburgesak aukeran. 60 urtean Narrondon bizi izan zen Jose Alonso eta Xabino Txurruka pilotari erretiratuen ustekabeko elkarteak sortu zuen eguneko anekdota. Izer eta Alabierren erromeriarekin dantzan amaitu zuten auzotarrek ostirala.

Larunbateko mus lehiaketa eta sardina janak arrakasta izan zuten eta jende asko bildu zen auzoan. Santi eta Ima izan ziren Mus txapelketako irabazleak.

Jaiei amaiera emateko, igandean, artisau azoka izan zen goizean zehar, eta jarraian, herri kirol saio bikaina; Julen Gabilondo eta Suharri Paolla, Ugaitz Mugerza eta Arantza Mugerza bikoteak aizkoran eta Karmele Gisasola, Aritz Norde eta Urdax, harri jasotzen. Andoni Egaña eta Sebastian Lizasok girotutako bertso bazkariarekin eman zitzaien jaiei amaiera.



ARROABEA KARMENAK

San Kristobal Egunean, asteazkenez, eman zitzaien Narrondon festei hasiera. Oholtza gaineko mezaren ondoren, hamaiketako eta haurrentzat puzgarriak eta musika izan ziren aurreneko eguneko protagonistak.

Atsedean hartzeko eguna eta gero, asteburu borobila izan zuten; inguruko sagardoak dastaketa eta Gure Ametsa elkartean, berriz, hanburgesak aukeran.

60 urtean Narrondon bizi izan zen Jose Alonso eta Xabino Txurruka pilotari erretiratuen ustekabeko elkarteak sortu zuen eguneko anekdota. Izer eta Alabierren erromeriarekin dantzan amaitu zuten auzotarrek ostirala.

Larunbateko mus lehiaketa eta sardina janak arrakasta izan zuten eta jende asko bildu zen auzoan. Santi eta Ima izan ziren Mus txapelketako irabazleak.

Jaiei amaiera emateko, igandean, artisau azoka izan zen goizean zehar, eta jarraian, herri kirol saio bikaina; Julen Gabilondo eta Suharri Paolla, Ugaitz Mugerza eta Arantza Mugerza bikoteak aizkoran eta Karmele Gisasola, Aritz Norde eta Urdax, harri jasotzen.

Andoni Egaña eta Sebastian Lizasok girotutako bertso bazkariarekin eman zitzaien jaiei amaiera.



ARROAGOIA SANTIO SANTA ANAK

Santio bezperan bota zuten Arroagoian txupinazoa. Poteoa eta afari herrikoia ren ondoren Obaneuke taldearekin dantza bikote lehiaketa egin zuten eta goizaldean Dj Patxek hartu zuen erreleboa.

Santio egunean Mila eta Izaskun izan ziren aurtengo tortilla lehiaketako irabazleak eta sagardorik onenaren saria, berriz, Etxeberrik irabazi zuen. Pilota partidak izan ziren jarraian eta arratsaldean herri kirolak. Betirako oroitzapena utzi dute aurten, gainera. Izan ere, jaiotzez bertakoa den Joseba Ostolazak berak egindako 100 kiloko harria oparitu zuen Herriko Etxean ikusgai dagoen erlojurako pisu modura jartzeko. Zatitxo bat puskatuta du nonbait eta ez du erakustaldietarako balio. Azkenekoz Udane, alabak, altxa eta betirako utzi du harria Arroagoian, auzoari dion maitasunaren adierazle. Arroagoian argazkizale mordoxka dago eta urtero bezala aurten ere prestatu zuten argazki proiektzioa; 2019ko argazkien txanda izan da aurten. Jarraian Izer eta Alabierrekin dantza saioa

Santa Ana egunean mezaren ondoren Bingoan aritu ziren jubilatuek hamaiketako ederrarekin. Arratsaldean, Ton Martinez "Txiki"ren umore saioa eta jarraian, herritarren arteko jolas eta kirolak. 30 gazte baino gehiago elkartu ziren, badu bere meritua! Gauean Etxebarria aita-semeekin erromeria eta auzoko Dj Olberrekin goizaldera arteko saioa.

Larunbatean eman zioten jai ei amaiera. Goizean Tolareko txirrindulari igoera eta ondoren, Altxorraren bila, umeen bazkaria, jolasak, apar festa eta txokolatada.

Gauean, Joselu Anaiak taldearekin erromeria eta Dj Olberrekin agurtu zituzten festak datorren urtera arte.





ELIZONDOREN DESALOJO AGINDUA BERTAN BEHERA GELDITU DA, MOMENTUZ

UZTAILAREN 19RAKO ZEGOEN DEITUA ELIZONDO ERAIKINA HUSTEKO OPERAZIOA. BEZPERAN BAZEN KALEAN BATEAN ETA BESTEAN DESALOJOA BERTAN BEHERA GELDITUKO ZENAREN ZURRUMURRUA, BAINA OFIZIALKI EZ ZEN INON PUBLIKO EGIN ETA GAZTEAK EZ ZEUDEN ZALANTZETARAKO.

Aste osoan zehar egin zituzten gaztetxearen aldeko ohiak aldarrikatuta “kale bueltak” eta desalojo egunaren bezperan ohikoa ez zen giroa sumatzen zen plaza inguruan. Gazte mordoxka etorri ziren inguruko herrietatik lo zakuak hartuta. Ezpalak eta Rodeoaren kontzertu akustikoetarako jende asko bildu zen plazan eta gehienak ez ziren gero beraien herrietara itzuli Zestoan geratu ziren lotan ostiral goizean “Gaztetxeari babesa emateko”. Ostiral goizeko zazpietarako plazan ziren batean eta bestean lo egindako gazteak gosaltzen eta zortzietarako zain-zain jarri baziren ere Ertzaintza ez zen agertu.

Goizeko 9:30ak aldera jakin zuten desalojoa bertan behera gelditu zela eta hamarretan egin zituen Gazte Asanbladak adierazpenak Zentroko balkoitik behean gazteak txalo eta oihuka zituztela. Honela esan zuen Asanbladako kidea baten “Zestoako Gazte Asanbladatik adierazi nahi dugu, desalojo agindua bertan behera gelditzea lortu dugula. Denbora honetan guztian Euskal Herri osotik iritsi zaizkigun elkartasun keinu eta ekimenengatik eta borrokak hartu duen garrantzia ikusita, elizak ezin izan dio antolakuntzaren bitartez sortutako elkartasun indar honi aurre egin, eta horregatik, desalojoa egiteko saiakera bertan behera geratu da.

Antolakuntzaren indarraren erakusle izan da gaurkoa!”. Bezperatik herrian lotan geratu zirenak eta ostiral goizean goiz “gaztetxea defendatzera” gerturatu zirenak ere eskertu zituzten.

Asanbladaren ustez, egindako “borroka guztiak merezi izan du” eta hauen esanetan, aurrera begira “borrokarako indar handiagoarekin jarraitzeko arrazoiak” eman dizkie desalojoa bertan behera gelditu izanak.

Baina Asanbladak argi dauka gaur eguneko egoera ezegonkorrean ezin duela jarraitu eta gehitu zuten: “Orain, inoiz baino garrantzitsuagoa da gaztetxearen auziari aterabiderako pausoak ematea (...) Udalari eta elizari hitz egitera esertzeko deia luzatzen diegu”.

Danbolinek jakin du aukera ezberdinak aztertzen ari direla, baina ez Asanbladako kideek ez eta Udalak ere, ez dute oraingoz adierazpenik egin nahi izan.

jone bergara



IKASTIA



Bai bideo tutorialak ikusi izan ditut, umeentzako gauzak begiratzen ditut tarteka, adibidez pultsera mota batzuk eta nola egiten diren edo irakaskuntzarako eskulan batzuk eta nola egin...

nerea linazasoro
44 urte



Musika entzuteko erabiltzen det ikasteko baino gehiago... Tarteka bideo labur batzuk ere ikusten ditut haurren intereseko gairen baten inguruan edo Euskal dantzetako bideoak ere bai, pausak eta ikasteko...

esti zabala
39 urte



Bai, nik erabiltzen det, bizikletako kontu batzuk eta nola konpondu eta jakiteko. Bideo batzuk ondo egoten dira, beste batzuk...


beñat arakistain
42 urte



Bai noizean behin ba etxeke konponketak egiteko, elektrizitate edo fontaneritza kontuak eta horrelakotan ez badakit zer egin ba kontsultatu egiten dut eta laguntzen dute.

mikel mugerza
43 urte


Gauza berriak ikasteko erabiltzen al duzu Youtube?



(Erantzuleak guztira: 71)



- Bai, baina gai zehatzetarako bakarrik
- Bai, askotan
- Ez, ez dut inoiz ikasteko erabiltzen



Oraindik ez dugu ikasi sartzea debekatuta dagoen lekuetan ez sartzen.



Kiroldegi aurreko parkean jostailu berriak jarri dituzte

BUZTUA

ABUZZTUA

05 astelehena
Musika eskolako azken ordutegiak finkatuko dira arratsaldeko 17:30etik 18:30era.

07 asteazkena
18:00etan Arroabeko jaietako balorazio irekia, Elkargunean.

Sanlorenteko Jaiak

10 Larunbata
Goizeko 11:00etan meza. Ondoren pintxoak bertaratutakoentzat, ume jolasak eta poniak.

* **L**AIK III. ARDO JOLAS LEHIAKETA abuztu bukaera. Egunak zehazteko daude.

amabirjinak aizarnan

14 asteazkena
18:00 txupinazioa
18:00-21:00 trikipoteoa Enaitz Alberdi eta Julen Ruedarekin. 21:00 herri afaria
00:00-03:00 Olgetan taldearekin erromeria

15 osteguna
Jubilatuena hamaiketako
12:30 Pelota partidak
-Bergara/LizarraldaAranburu/Iraola
-Azkue/ArtetxeUria/Alonso
-A. Egiguren/U.EgigurenSasiain/Alonso
22:30-01:00 Trikitilariak: Garixe eta Lanberri

16 ostirala
11:00 Umeen txupinazioa
11:30 Ur Jolasak. Ondoren haur eta gurasoen bazkaria. 17:00 Junkana
18:30 Txokolatada
19:00 Adabaki taldearen ikuskizuna
23:00-05:00 Dj Patx

17 Larunbata
07:00 Oilaskobiltzeko irteera
11:00 Ume eta gaztetxoena krosa
12:00 Paella prest! Jarraian oilasko biltzaileen dantza plazan.
15:00 bazkari herrikoia (paella)
Oilasko biltzaileen amaiera
23:00-03:00 Dj Davila

31 Larunbata
Goizean Ondarbaso igoera, ondoren herri bazkaria eta gauean kontzertuak.

IRAILA

01 Igandea
Edadetuen eguna.

amabirjinak zestoan

06 ostirala
Txupinazioa, Gurea Kultura kontzertuen baitan Viva Belgrado, Pinpilinpuessies eta Nakar taldeak, aurreneko zekorketa, pilota partidak eta musika.

07 Larunbata
Kuadrilen eguna; paella...

08 Igandea
Amabirjin eguna. Diana, meza nagusia, dantzaurrea, bandaren kontzertua, bigarren zekorketa, Gurea Kulturaren baitan Ke Lepo eta Pelax

09 Igandea
Umeen eguna, zahagi dantza, suzko zezena...



FEREKI BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

695 721 015 / 690 108 996 / 667 537 892
Jagoba Otaegi - Isidro Fernandez - Joan Fernandez

@fereki2024

fereki2024@gmail.com

Taxi Zestoa

9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena

Osteopatia - Kirol masajea
605 765 140 Portale kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
1919-2019
Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizuclicinidental@gmail.com
ZURINE ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDOIA ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Telf.: 943 14 78 28

Fisioterapia
Osteopatia
eskua
Therapy Group
- 943 29 08 99 -
Toribio Alzaga 20 - 22 20740 Zestoa

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Alzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015

Pakei Olorua
943 148 428

unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairl
LUTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tlf: 943 148 010

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

S
ESTILISTAK
680 802 777

ZESTOA
ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZESTOAKO UDALA